

**ODEI LERENDEGUIREN BIGARREN
TXAPELA, ARRANOKO XAKE
TXAPELKETAN**



Erdian, Odei Lerendegui Lasa txapelduna eta Haymar Leone Amigot 14 urtez azpiko lehenengoa, Arrano Elkarteko zuzendaritzako bi kideren alboan.

2019ko irailaren 2tik 6ra jokatu zen Arrano Elkarteko XXII. Xake Txapelketa, Iruñeko Alde Zaharreko elkartean, xakelari euskaldunentzat antolatutakoa (ezaugarri horretaz malgutasun gehiago izan bada ere edizio honetan).

Arrano Elkartea, Donibane Kirol Elkartea, Gazte Berriak, Mikel Gurea, Oberena, Orvina, Paz de Ziganda eta Runa taldeetako 27 jokalarik hartu zuten parte. 12 ziren Mikel Gureakoak.

Mikel Ochoa Aldaz aurreko edizioko txapelduna gabe eta Odei Lerendegui Lasa faborito garbi modura abiatu zen txapelketa.

Mikel Gureako 20 urteko jokalaria ez zuen hutsik egin eta bere bigarren txapela eskuratu zuen, atsedean batengatik puntu erdia galdu bazuen ere. Dena den, Haymar Leone Amigot Orvinako jokalariaen aurka asko sufritu zuen azkeneko partidaren. Garaipena behar zuen eta lortu zuen, baina kostata.

Haymar Leone 12 urterekin garaipena dastatzear egon zen. Bigarren geratu zen 4 puntuz. 14 urtez azpiko lehenengoarentzako trofeoa eraman zuen.

Ekain Galarza Arza Oberenako jokalaria ere txapelketa ona egin zuen, 4 puntu lortuta eta hirugarren sailkatuta. Unai Ruiz Etxeberriak ere 4 puntuz amaitu zuen, laugarren tokian.

FIDE elorako balio zuen torneoak eta gorabehera handiak eragin ditu. Eloa nabarmen gizendu duten batzuk hauek dira: Ekain Galarza (82'8), Unax Senosiain (61'6), Haymar Leone (55'2), Iñigo Ayucar (42), Jokin Arbeloa (35'2), Asier Ayucar (35'2) eta Aitor Legasa (24'4).

Beste batzuek, ordea, elo asko galdu zuten. Haien artean, Joseba Otano lau aldiz torneo honetako irabazlea (22'4) eta Adrian Oroz Udaberri Torneoko aurtengo irabazlea (36'4).

TXAPELKETAREN LABURPENA.

Jokatutako partidak: 52tik 49 (% 94'23).

Txapelduna (trofeoa eta txapela): Odei Lerendegui Lasa.

14 urtez azpiko lehenengoa (trofeoa): Haymar Leone Amigot.

TORNEOAREN PALMARESA.

- 1) **Joseba Otano Villanueva – 4 garaipen.**
- 2) **Joxetxo Labairu Senosiain – 3 garaipen.**
- 3) **Adrian Leranoz Zabalza – 3 garaipen.**
- 4) **Mikel Ortega Lopez – 3 garaipen.**
- 5) Odei Lerendegi Lasa – 2 garaipen.
- 6) Juan Pablo Alegre Perez – Garaipen bat.
- 7) Roberto Arana Oloron – Garaipen bat.
- 8) David Arjol Etxeberria – Garaipen bat.
- 9) Egoi Hernandorena De la Cruz – Garaipen bat.
- 10) Juan Jesús Mindegia Guruceaga – Garaipen bat.

- 11) Mikel Ochoa Aldaz – Garaipen bat.
- 12) Mikel Razkin Fraile – Garaipen bat.

14 URTEZ AZPIKOENTZAKO TROFEOEN IRABAZLEAK.

- 1) **Manex Insausti Olasagarre – 4 trofeo.**
- 2) **Carlota Aramendia Ybarra – 2 trofeo.**
- 3) **Julen Arbeloa Sanchez – 2 trofeo.**
- 4) **Mikel Ortega Lopez – 2 trofeo.**
- 5) **Odei Lerendegi Lasa – 2 trofeo.**
- 6) Mikel Garijo Echavarri – Trofeo bat.
- 7) Ander Garralda Ruiz – Trofeo bat.
- 8) Haymar Leone Amigot – Trofeo bat.
- 9) Javier Sevilla Subiza – Trofeo bat.

Interneteko lotura: “<http://chess-results.com/tnr467956.aspx?lan=2&turdet=YES>”.

2019-09-06.

Iturria: Arrano Elkarte Xake Taldea.